

# BIBA EUSKADI NAZI

Joxe Azurmendi

PSOE-ren informazio bulegoek beren komunikadoak zabaldu dituzte mundu zabalera, Felipe Gonzalezek Euskal Herrietan egin duen jiraren berri emanaz. Alemanian zabaldu dutenak hauxe dio: erabateko esitoa izan omen dela, eta abar. Zarata batzuk ere izan omen dira:

1. Zarataon kausanteak, PSOE-k dioenez, euskaldun abertzale eskuin-eskuindarrak izan omen dira. Garbi esan: extrema derecha-ko nazionalista euskaldunak.


2. Espreski Alemaniako naziekin konparatzen ditu PSOE-ren komunikadoak abertzale eskuindarrok. Eta abertzale eskuindarren jokabidea propio 1933 aldekoarekin Alemanian konparatzen dute.

1933: urte honetan, kale terrorismoz demokraziaren kolapso bat sortuz, suntsitu zuen Hitlerrek Weimarko Errepublika. Metodo horiekin aginterratu eta abiatu zuen, guziok dakiguna.

Ez dakit irakurlea garbi ohartuko den, deklarazio horren ikaragarritzko zentzuak: non eta Alemanian holokorik zabaltea, nazismoa zer den apur bat badakien herri honetan, kriminala da eta metodorik faxistenen pare-pareko da. Hori egiten duenak, euskal abertzaletasuna zanpatzeko bide guziak ontzat ematen ditu. Azkeneraino joateko pronto dago abertzaleon kontra, munduko sozialistarik sozialistena dela, predikatzen badu ere. Aleman publikoaren aurrean, kolpe batekin ontzat ematen dira, euskaldunei egin zaizkien guziak. Zeren-ta, zer ez luke gaurko aleman publikoak zuzentzat emango, nazien kontra? Nazientzat ez dago askatasunik eta ezin egon daiteke: beraz, aleman publikoa oso prest dago onartzeko, naziok juzkatzea eta zapaltzea eta nolanahi kastigatzea eta persegitzea eta, behar baldin bada, afusilatzea ere. PSOE-k oso ondo daki hori. Baina PSOE ez da, asko nekatuko den Alderdi bat, Alemanian jendea mugiarazten, esate baterako, gartzeko abertzaleen amnestiaren alde. Horiek nazi al diren, galderari, besteren batzuek erantzun beharko diogu.

Euskal Gonzalez garrasika hartu hartu zuten abertzaleak eta besteak, denak nazi batzuk zirela zabalduz Alemanian? Alemanian, burges kontserbazale eskuindarrenari ere nazi esaten badiozu, seguru egon prozesu bat egingo dizula eta zeure larrutik pagatu beharko diozu. Hemen nazi oraindik nazi da. PSOE-k bazekien hori, hemengo sozialisten laguntzaz eta sindikatoen diruz erabil ditzakeen infor-

mabideak aprobetxatu dituenan, aleman publikoari nahiz langile espainolei euskal abertzale nazien irudi bat muntatzeko. Bere eskuetan daduka hemengo irrati espainola. Euskaldun abertzale nazien ipuina zabaldu dute han ere, langile espainolak demokratikoki hezitzekotan noski. Euskal Herrian Felipe Gonzalezen kontra daudenak nazi hutsak direla, ematen du PSOE-k aditzera. Eta Alemanian hori.



Felipe Gonzalezen kontra garrasika aritu zitzaizkionen artean, oso kolore diferentetako abertzaleak omen zeuden. Baina hori ere nazi horietxen prentsak esan du, eta PSOE-renak isildu. PSOE-k, bere kontrarioak nazi izatea, behar du. PSOE-ren kontrarioak nazi hutsak direla, sinetsi behar du mundu guziak.

Euskal Herriko prentsatik jakin dugunez, Endrike Mujikak arrazista zerrizkien euskaraz egiten enpeinatu ziren abertzaleei. Felipe Gonzalezen inguruko emakumeren batek BIBA EUSKADI NAZI hura esateko ez du lotsaren arrastorik. Beroaren beroan esanak ziruditen, koinzidentzia harrigarria bada ere. Failo bat? Oso besterik da: PSOE-k abertzale nazien irudia kulti-batu eta zabaldu nahi du, medio guziekin, Espainian nahiz atzerrian. Programa horixe du. Ez da kasualtaterik izan, istilu artean burua galduta. PSOE-k Euskal Herrirako asmatzen daki programa guzia horixe bait da, dudarik gabe horixe bilatzen zuen, txo-

ke frontal bat, eta PSOE longikoa da Felipe Gonzalezen jirari erabateko esito eriztean: PSOE-k Euskal Herriari egin dezaiokeen guzia, euskaldunok mintzea eta nazio sentimentuak sakailzea da. Esito konpleto. «Si abren la boca, es sólo para insultar a los vencidos».

PSOE-ko orain artean gustora aireatu ditu herbestean, euskaldun abertzale nazi horietxek egiten zituztenak, berak egindako hazainak balira bezalaxe. Sentimentu askorekin hitz egiten zuen Euskal Herri zapaldu gaisoaz. Euskaldun ezkertiarrek aipatu ohi zuten. Ez zuen esaten, euskaldun horiek nazionalistak zirenik ere, *nazionalista* hitza hemen erabilitzerik ez dago eta, nazismoaren ondoren. Eskerrik asko. Euskaldunei egiten zitzaizkien bidegabekeriak aipatu ditu, ederki aprobetxatuz beretzat, ahal zuen propaganda guziarekin. Halare, beste haiek Alemanian inoiz naziekin konparatu dituenik, ez dakigu, Felipe Gonzalezen PSOE horrek, azken urteotan. Orain istilutxo batzuk aski izan ditu, nazi hitza segituan ateratzeko. Orain nazionalista esaten du. Eskuindar esaten du. Orain ez du zer aprobetxarrik. Ez dakigu ere, PSOE-k nondik norra konpara dezakeen oraingo egoera, Deustu edo Eibar aldean, Weimarko Errepublikarekin. PSOE-k salatzen dituen nazi horiek, Felipe Gonzalezen eta Endrike Mujikaren askatasunarentzat izan daitezke arriskugarri. Euskaldunen askatasunik eta demokraziarik ez dute arriskuan jarri. Berek irabazitako askatasunak ote dira, gozatzen dituzten eta arriskuan ikusten dituzten horiek? Nola ez dira garrasika ari ziren haietzako demokraziak akordatu? Horiko demokrazia Weimarko Errepublikarekin edo antzekoekin konpara ohi dituztenak, beste nonbait daude eserita: Bunkerrean. Odola behar da, Weimarko Errepublikarekin konparaketan hasteko! Eta sozialistak omen dira halakoak... Weimarko Errepublikan sozialistak Gobernuan zeuden. Gobernuan sentitzen ote dira Felipe Gonzalez eta Endrike Mujika?

PSOE-k dudarik gabe oso ondo daki, bere askatasunarekin eta pribilejio guziekin ere, Euskal Herrian sekula zer irabaziko ez duen: euskaldun sentitzen direnak, euskal problema benetaz sentitzen dutenak. Endrike Mujikaren arrazistak. PSOE-k irabaz ditzakeenak, PSOE-rentzat interesanteak, besteak dira: euskal sentimentuan koloka edo epel dabiltzan nolanahiok, edozergatik ere; oraindik integratu ahal ezindako langileak, konzientziatu gabekoak, berrogei urtetako propaganda-

dak itsutuak, erreminduak, eta gainerakoak. Horiek irabazteko, PSOE-ren gaurko metodoa atzoko berbera da: in-migranteei eta, PSOE-k irabazditzake-ela uste duen guzietan, abertzaleak na-zi hutsak eta arrazistak direla, sinis-tarazi behar zaie. Guziaren gainetik, horiek euskal sozialismo batekin kon-taktorik hartzea ebitatu behar da. PSOE-k bi sailetan erdibituta behar du Euskal Herria. Zergatik ez da Felipe Gonzalez horiengana joanez hasi, Es-painiak sortutako euskal problema bat dagoela esateko, eta problema hortaz arduratu behar dela, PSOE-k problema hori konpondu nahi omen badu? Beste zer konpontzera zetozen honuntza? Baina berrogei urte luzez horien men-talitatea nahi bezala moldatu dutenak, PSOE-ri ez zaizkio inolaz ere nazi iru-ditzen.

Felipe Gonzalezek gauza bat ezin du egin: sozialismo abertzalerik onartu. Bestela, PSOE kito. PSOE-k, bere kon-trarioak nazi izatea, behar du. Beste-la, nazi baten aldean ezpada, behar-bada ez litzaioke antziki emango ere, PSOE demokratik denik eta ez sozia-lista denik. PSOE-ri asko erraztuko li-tzaioke bere lana, bere bozemaile po-sibleen artean abertzaleen kontrako arrazismo eta nazismo susmoa indar-tuko balu. Baina suarekin dolasean ha-si da. Eta ikusiko da zein erretzen den.

PSOE-k langile emigrazioan propa-ganda nola egiten duen, agian komeni zauden jakitea barruko jendeari. Egia esan, orain artean guti nekatu da. Orain azkar dabil, eta Alemaniako so-zialisten eta sindikatoen edonolako la-guntasunik ez zaio falta. Kanpaina ha-undia darabilte, beraz. Langileak bil-tzen dituzte. Hizlariak PSOE-ren mere-zimenduak kantatzen ditu. Eta Espai-niako Alderdi inportanteena PSOE de-la dozena bat aldiz esan ondoren, eta abar, «regioen» arazoa planteatu be-har izaten da. PSOE-ren propagandis-tak esaten du orduan, berek autode-terminazioa onartzen dutela. Bakoitza-k nahi haina askatasun izango duela, etc. Baina —jarraitzen du PSOE-ren man-datariak— sozialistek nola apoiatu, «Alderdiaren sartzeko zortzi deitura gar-bi eskatzen dituen Alderdiari?». Kata-lanak ez omen dira zortzi deitura ka-talan garbi dituztenak bakarrik (adibi-de hori Katalunarako eta Euskal Her-riarako batera erabiltzen bait da). Ebanjelio horrekin dabilta, oraintsu PSOE-k Madrildik bidaltzen dizkigun apostoluak bazterrotan. Extremadura-tik eta Andaluciatik etorri zen langi-lea, sinestuta gelditzen da, Euskal Her-riaren eta Katalunian, Alderdien bate-tan sartzeko zortzi deitura garbi es-katzen direla, PSOE-n sartzeko ezpa-da... Proletargoaren internazionalis-moa hemen praktikatzeko da, emigra-zioan, eta ikusi zein ederki praktikatu ere! PSOE ez da arrazista. Aitzitik, PSOE da euskal arazoa zuzenduko duena, Felipe Gonzalezek esan due-nez. *God save the socialism!*

# ESPAÑOLAK LONDRESEN

Azkenaldi honetan badute nahiko lan Junta Democraticak eta Plataforma de Convergencia Democráticak, European zehar, beren buruak agertzen eta beren jokoerak adierazten. Orain dela denbo-ra gutxi, Inglaterrian egin dute beren presentazio ofiziala.

Honera etortzeko konponketak, Co-mite de Solidaridad con España egin zituen. Komite hau, aintzinako Brigada Internazionalakoek eta Trade Unione-koek osatzen dute, azken hauen laguntza-ekonomikoa dutelarik. Hoiengana asmoa berriz, Espainiako problemei buruz In-glaterrako jendea sensibilizatzea da.

Jakin behar da, Inglaterren Trade Unionak U. G. T. eta ELA onartzen di-tuela, erakunde internazionalen bitar-tez. Baina, Comisiones Obreras ez dau-de homologaturik, eta, orduan, T. U.ek ere ez ditu onartzen.

Esan dutenez, Comité de Solidari-dadearen lehen asmoa, Junta Democra-tica eta Comisiones Obrerasi deitzena omen zen. Baina Comité horren barru-an Trade Unioneko jendea (Jack Jones, e.a.) baitago, hauek presionatu egin zu-ten Convergencia, jeneralki, eta U.G.T. eta ELA, partikulariki, etor zitezten, bes-tenaz Comisiones Obrerasi joko egi-tea eta hoiengana onartzea gertatuko bai-tzen. Orduan, Plataforma de Conver-gencia Democratica, azken orduan, abi-satua izan zen; baina halaz ere hemen zen.

Bi taldeon lehenbiziko lana prentsari agertzea izan zen. Gero, Parlamentuko diputatu batzuekin izan ziren, beren kezka eta asmoak agertzen zituztela-rik.

Azkenik, larunbatean, otsailaren 14-ean, konferentzia batean, talde hauekin bildu ziren: a) Brigada Internazioletako zaharrekin; b) larehun bat ingeles enlaze sindikalekin; d) Espainiako bo-rrokalarien adiskideen (ahuen artean Laneko ministroa, Michael Foot).

Hitzaldi asko eta hitz ugari esan zen, baina mami gutxikoak, demagogia ga-lanki erabiltzen zutelarik, nahiz eta in-gelezen mentalitate pragmatikotik bat egon.

Bestalde ingelesek, kontraste bezala, oso hitz gutxi baina mamitsuki egin zu-ten, benetako solidaritatea azaltzen zu-telarik Espainiako borroka demokratiko-aren alde. Bai Jack Jonesek (transpor-tetako sindikato indartsuen idazkari na-gusia) bai M. Footek, euskal sindika-toen eta Euskal Herriaren borroka isila eta gogorra agertu eta agurtu zuten; bi gizonok esan zuten, Euskal Herri-ko borroka Estatu barruko aintzindaria omen da eta benetan txalogarria.

Nahiz euskal ezkerrearen ahulezia as-kotan gauza nabarmena izan, uste dut, hemen agertu zenez, beste leku asko-tan ahulagoak eta aluagoak badirela.

Ibilaldi honetan garbi ikusi da Espai-niako politikoen mingain erraza, arina, hutsa, huskeria eta demagogia eta abar. Joan ziren leku guztietan, bakoi-tzak bere roloa sartzen zuen,— nahiz leku askotan ez izan oso egokia eta isi-lik geratzea hobe izan— bere etxe al-de tiratuaz. Adibidez, Camachori ez zi-tzaion bi aldiz galdetu behar gartzelan zenbat urte egin zituen; «egun on» esan eta, bere bizia azkar kontatzen zizun, besarkada haundi bat ematen zuelarik.

Bestalde, bi taldeen artean nahiz eta hitz politik esan, nabari zen beren ar-tean nahiko eztabaida eta ezin ikusi. Bi-lerak bukatu eta gero, ederki nabari zen bakoitza zein taldetako zen, ar-diek bezala jarraitzen baizitzaizkion be-ren artzaiari.

Espainiako ezkerrearen eta oposizioa-ren makaltasuna ikusirik, hitz haundiak eta demagogia bazter utzirik, politika errealista batean eta helburu pragma-tiko batzuekin Euskal ezkerre elkartzeko bada, Euskal Herriari alternatiba sozia-lista berezi bat eskaintzeko moduan ga-rela oraindik iruditzen zait.

Egun, Espainiako oposizioak, eskaera basiko batzuk bakarrik egiten ditu. Bes-te aldetik, bada euskal alderdien artean Euskal Herriari alternatiba sozialista bat ematen dionik, nahiko puntu basi-kotan bat direnik, batasunaren bidez alternatiba hori suntsituko luketenak alegia.

J. A. MENDIZABAL